

## AMA BIRJIÑARI, BERE ZERURA IGOERAN

---

I

Goiz sentiyan nola da  
 Sortzen eguzkia  
 Argitasun ederrez  
 Primorez jantzia,  
 Zeruko izarretan  
 Parerik gabia?....  
 Ederragua zera  
 Birjiña Maria.

Zer eder sortu ziran  
 Baso ta mendia!  
 Zer ederra larrosa  
 Arantzaz josia!  
 Zer eder loretsuma  
 Dan uda-berria!...  
 Ederragua zera  
 Birjiña Maria.

Menditikan dijoan  
 Erreka chikia  
 Alaiturik zelai ta  
 Baserri churia,  
 ¡Zer ederra!... ta bere  
 Ura ¡zer garbia!...  
 Garbiagua sortu  
 Zera zu Maria.

Odoi tantarik gabe,  
 Baizik den berdiña,  
 Azaldutzen da iñoz  
 Zeru-goi urdiña,  
 Garbiyan ez izanik  
 Ezer ori diña.....  
 Garbiyagua sortu  
 Zera zu Birjiña.

Zer ederra dan gaba  
 Izarrez betia,  
 Agertutzen dalarik  
 Ere illargia!.....  
 Zer eder Jaungoikoak  
 Egin dun guztia!....  
 Ederragua zera  
 Birjiña Maria.

## II

Nere biyotz larriyak  
 Bera dan den-dena,  
 Kantatutzera zure  
 Doayak lenena,  
 Alako gauza batez  
 Pozkidaz narama,  
 Zeralako Jaungoiko  
 Semearen Ama.

Bañan gizonak ez du  
 Iñola izkuntzik,  
 Zure doai ederrak  
 Kantatzeko denik,  
 Gizon on fedetsuak  
 Ez daki besterik  
 Zuri, ¡Ama! deitutzen,  
 Oriñen bakarrik.

Orrela gaur izanik  
 Zure igoera  
 Zerura, an erregiñ  
 Beti izatera;  
 Nator fedez beterik  
 Ama, zure aurrera  
 Otoitz ūamur batekin  
 Erregututzera.

Begira nola dagon  
 Nola España!...  
 Anparatu ezazu  
 Gure sort-erria!  
 Baita ere ar zazu  
 Zugain, Donostia!...  
 Ori eskatzen dizut  
 Amacho maitia!

RAMÓN INZAGARAY.

Abuztuaren 15-ean.

